

## Pirinioetan ere, airez iritsitako mikroplastikoak

Mikroplastikoek kilometroak egin ditzakete airean ere, eta jatorritik urrun bukatu. Hain zuzen ere, Pirinioetan jaso dituzten airez etorritako mikroplastikoen berri eman dute *Nature Geoscience* aldizkarian.

Orain arte, bi megahiritan baino ez ziren jaso airetik erorritako mikroplastikoen laginak: Parisen eta Dongguanen (Txina). Oraingoan, berriz, ahalik eta lekurik garbienetako bat hautatu dute ikertzaileek laginketa egiteko; Pirinioetan egin dute, Bernadouzeko Estazio Meteorologikoan, 1.425 metroko altueran.




ARG.: Jean Louis Tosque/Pixabay.

Bost hilabetez egon ziren laginak hartzen, eta mikroplastiko-kantitatea esanguratsua jaso dute, megahiritan jasotakoaren antzeko kopurua. Zehazki, egunean 365 partikula jaso zituzten metro karratuko. Plastikotari dagokionez, gehienak polietilenoak eta poliestirenoak ziren (plastikozko poltsak egiteko erabiltzen dira, besteak beste), eta polipropilenoak zintzak ere (ehungintzan oso ohikoak) ugariak izan ziren.

Bestalde, aire-korronteen azterketak eta simulazioak eginez, kalkulatu dute 100 km inguru egin ditzaketela plastikozko partikula horiek airean. ●

## Hezur-muineko transplanteek hiesa senda dezakeela berretsi dute



Hiesdun paziente batean GIB birusa guztiz desagertaraztea lortu dute, bigarren aldiz. ARG.: Pixabay.

Bigarren aldiz, hiesa zuen paziente bat sendatzea lortu dute. Hezur-muineko transplantea egin zioten ICISTEM lan-taldeko ikertzaileek, Hodgkinsen limfoma ere bazuelako eta bizirauteko beharrezkoa zuelako. Bide batez, ordea, GIB birusarekiko erresistentea den pertsona baten hezur-muina transplantatu zioten; alegia, birusaren sarrera eragozten duen D32 mutazioa duena CCR5 hartzaillean. Transplantearen ondoren, ez dute birusaren arrastorik ikusi ikertzaileek: ez odolean, ez eta gordailuetan ezkutututa ere. Ez da birusik agertu, ezta botika erretrobiralak hartzeari utzita ere. Era guztietara, zuhur jokatu eta guztiz sendatuta dagoela ziurtatzeko denbora gehiago itxoin behar dela onartu dute.

“Transplanteak heriotza-tasa oso altua du, eta ezin da izan hiesa sendatzeko tratamendu bat”, adierazi du Jon Badiola ikertzaile eta ICISTEM lan-taldeko kideak. “Kasua baliatu behar dugu jakiteko zein mekanismo erabili duen gorputzak gordailuetako zelula horiek aurkitu eta hiltzeko. Hala, mekanismo hori ulertzen eta kopiatzen badugu, toxikotasun txikiagoa duen bestelako terapia zelularra garatu ahal izango dugu, hiesdun paziente guztientzat balioko duena”. ●